


solasaldia k

Andres Urrutia

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA




Enkarterdeko Administrazioa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Solasaldiak [17]

Andres Urrutia



Elkarrizketa
Miel A. Elustondo

Marrazkiak
Antton Olariaga

Argazkia
Zaldi Ero

2020

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Administrazioa Euskaraz **Solasaldiak**

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Argitaldaria: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Diseinua: Concetta Probanza

ISSN: 1576-5563

Lege-gordailua: BI-1141-93

Fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena, S.A., Araba k. – 20800 Zarautz



Andres Urrutia

1. Andres Maria Urrutia Badiola (Bilbo, 1954). Zuzenbidean doktorea, lanbidez notarioa eta unibertsitateko irakaslea.

Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1991n eta euskaltzain oso, berriz, 1997an. Bere sarrera hitzal-diak *Legearen zirrikituetatik barrena: ahozkotik idatzizkora* zuen izena.

Euskaltzainburua da 2004ko abenduaz gero. Era berean, Institut d'Estudis Catalans erakundearen Filologia Saileko kide urgazlea da 2010etik hona.

2. Bilbon egin zituen oinarrizko ikasketak, eta Bilboko Deustuko Unibertsitatean lizentziatu zen Zuzenbidea eta Ekonomia espezialitatean (1976). 2015ean Zuzenbideko doktoregoa burutu zuen, unibertsitate berean. Madrilen prestatu zituen notario lehiaketak. Gainditu eta Ondarroako notario izan zen 1981etik 1994ra. Harrezkero, Bilbon egiten du notario lana.

3. Hainbat erakunderen euskara-gaitasun agiriak ditu: Euskaltzaindiaren D titulua (1981), Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialarena (1982), Eusko Jaurlaritzaren B titulua (1986) eta Labayru Ikastegiarena (1988). Zinpeko itzultzailea ere bada euskaratik gaztelaniara eta alderantziz.

4. Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasle da 1988-1989 ikasturtetik, eta euskara-koordinatzaile ere izana da fakultate berean. Foru Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila irakasten ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Unibertsitateko Euskara Juridikoaren Mintegiko sortzaile (1993) eta Euskal Gaien Institutuko kide izana da.

Zuzenbide eskuliburuak prestatzen, euskal terminologia berreskuratzen eta corpus juridikoa itzultzen lan handia eginga da, hainbat irakaslerekin elkarlanean.

2014an, Terminologia Master titulua eskuratu zuen Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean, eta hurrengo urtean, Zuzenbideko doktoregoa *Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas inter privados* izeneko tesiarekin.

Graduondoko ikastaro eta hitzaldi ugari ditu emanak euskal kulturaz eta zuzenbidez.

5. Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak antolatutako epaileen formazio ikastaroetan irakasle izana da. Bizkaiko Foru Aldundiak batzordekide izendatu zuen, orobat, Bizkaiko foru zuzenbidea eguneratzeko, eta Eusko Legebiltzarraren Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko (1992) eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko (2015) legeen idazketa batzordekide izan da.
Era berean, Euskadiko Autonomia Estatutuak araututako Ebazpen Batzordearen kide da, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean.
6. Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordeko kide (1984-1988 aldian eta 2004tik gaur arte) eta Lege Garapenaren Azpibatzerdeko kide izan da. Era berean, Nafarroako Gobernuaren Euskararen Nafar Kontseiluko kide izana da.
Eusko Jaurlaritzaren Etxepare Euskal Institutuko (2008) patronatukide ere izana da.
7. Jakintza eta kultur elkarte ugariak kide ere bada: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte, Euskal Idazleen Elkarte, Mendebalde Kultur Alkartea, Eusko Ikaskuntza, Kanadako Institut International de Droit Linguistique Comparé, eta beste.
Bestalde, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren presidentea da 2016ko martxoaz geroztik. Akademia horrek berak sortuak dira Forulege, euskal zuzenbide zibilaren webgunea, eta Iusplaza Zuzenbidea Euskaraz webgunea ere.
8. Euskal literaturaz denaz bezainbatean, narrazioak eta itzulpenak idatzi ditu, baita klasikoen edizioak prestatu ere, Juan Bautista Eguzkitza (1874-1939) eta Eusebio Erkiaga (1912-1993) euskaltzainena, adibidez. Horiekin batera, hamaika lan argitaratu ditu *Idatz & Mintz* aldizkarian, eta bi narrazio liburu argitaratu ditu: *Orrialdeak* eta *Berbondo*.
Itzulpengintzari dagokionez, galegotik itzuliak ditu *Mutiko baten oroitzapenak* eta Xose Luis Mendez Ferrinen *Tagen Atarako itzulera*, *Percival* eta *Marisorgina*. Halaber, *Hareazko erlojua*, Alvaro Cunqueirorena.
Gainera, Tolkien-en *Silmarilion* eta James Joyceren *Ostatua* ere euskarara ekarriak ditu, Bernard Manciet eta Max Roketa idazle okzitaniarren zenbait testurekin batera.
9. Euskaltzaindian, hiztegi gintzan eta arlo juridiko-ekonomikoan egin zituen lehenbiziko lanak.
2001-2004 artean Jagon sailburu izan zen, eta, 2004an euskaltzainburu izendatu zutenetik, ardur horixe izan du oraindano arte.
Berrikuntza franko abiarazi zituen euskaltzainburu izendatu zutenetik eta, oroz gain, hiru ildotan saiatu zen: Euskaltzaindiaren giza eraberritzean, euskararen ikerkuntzan eta erakundetzean sakontzean, eta finantzabideak orekatu eta egonkortzean.
10. Hainbat aldizkaritako batzordekide da: Labayru Ikastegiaren *Idatz & Mintz*, Eusko Ikaskuntzaren *Eleria*, Euskaltzaindiaren *Euskera*, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren *Jado*, *Sancho el Sabio* eta Udako Euskal Unibertsitatearen *Uztaro*, besteak beste. Eusko Jaurlaritzaren *Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkariaren* kontseilukide izana da.

Hamaikatxo artikulu ditu han-hemengo agerkarietan idatziak, dela zuzenbideaz, dela euskal literaturaz: *Karmel, Jakin, Revista del Ilustre Colegio de La Abogacía del Señorío de Vizcaya, Estudios de Deusto, Hegats, Ondarroa, Enseiukarrear, Administrazioa Euskaraz, Arranondo, Gara, Berria, Diario de Navarra, Cervantes, Hemen, Hermes, Litterae Vasconicae, Oihenart, Erlea, ASJU, Illunzar, Jado* (Zuzenbidearen Euskal Akademiaren aldizkaria), *International Journal for the Semiotics of Law* eta beste hainbatetan.

11. Zuzenbidearen alorreko euskara teknikoak lantzen nabarmendu da, *Euskara legebidean* eta *Euskara, zuzenbidearen hizkera* (Gotzon Loberarekin elkarlanean) liburuekin.

Antzinako testu juridikoak ikuspegi juridiko-linguistikotik berreskuratzeko eta aztertzeko ahalegin berezia egin du *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833–1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa* lanean eta, orobat, *Euskara foru aldundien zirkularretan: Bizkaia eta Gipuzkoa* izenekoan.

12. Sariez denaz bezainbatean, Iurretako Euskal Jaien narrazio saria jaso zuen 1991n, Bizkaiko Foru Aldundiaren Andres E. de Mañaricua Saria 1993an, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Jesus Maria Leizaola Saria 2015ean, Bilboko Liburu Azokaren Urrezko Luma 2016an eta, oraindik orain, iragan urtarrilean Sabino Arana Fundazioaren 2019ko saria.
 13. Ez da hamahirurik.
-

Andres Urrutia

«Euskara ez da politika, euskara da hizkuntza»

Behin eta berriz eta askotan jo behar izan dugu kax-kax Andres Urrutiaren atean, solasaldi honi tartea egin diezaion. Baina lehenbizikoan emana-gatik ere, gure euskaltzainburu, unibertsitateko irakasle eta notarioak ezin tarterik egin. Halakoren batean, horratik, zehaztu dugu hitzordua. Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitza nagusian hitz egingo dugu. Gure atzetik sartu da Plaza Barriko etxera, estu eta larri. Lanez gainezka bizi den itxura osoa du, erabatekoa.

“Gizon okupatua gauza ederra da”, Xabier Leteren bertsoan.

■ Entretienituta, behintzat, bizi naiz. Gustatzen zait entretenimendua.

Unibertsitatea lantegi...

■ Oraingo, bai.

Euskaltzaindia lantegi...

■ Oraingo, bai.

Notarioria lantegi...

■ Erretiratu arte, seguru!

Entretienimendu bete lan.

■ Baldin eta bokazioa baduzu, ondo. Eta niri beti interesatu zait euskalgintza. Baita irakaskuntza ere, uste baitut gure konpromisoa dela belaunaldi berriei transmititzea guk besterengandik ikasi duguna. Dakidan apurra besteei transmititzen saiatuko naiz beti, ez alferrik nator irakasle familia batetik. Amaren aldeko guztiak irakasle ziren, eta neuk ere bokazio horixe dut. Bokazioa batetik, ofizioa bestetik. Notario naizen aldetik, jendearen arazoak konpontzen, edo konpontzen laguntzeko aukera izatea pozgarri zait, eta pozgarri ez ezik, aberasgarri ere bai, asko ikasten baita jendearekiko harremanetan. Iruditzen zait, hala ere, sarritan ahaztu egiten zaigula hori. Esate baterako, oso interesgarria da ikustea irakaslearen mundu teorikoa praktikan nola kizkurtzen den irtenbide egoki bila hasten garenean. Legearen hitz eta letra lehorretik abiatuta gizabidezko soluzioak asmatzea ere gustukoa dut.

Amaren aldeko guztiak irakasle zirela esan duzu.

■ Bi urte nituela hil zitzaidan ama, anaia sortzean. Bi izekok hazi eta hezi gintuzten. Bata zen Aurora, bestea Lukrezia. Hau, Lukrezia, alegia; euskalgintzan ibili zen gerraurrean. Jakina, gerra ostean horren ondorio bortitzak jaso zituen, frankismoak



garbitu eta baztertu eta erbestera bidali baitzuen maistra. Hamarkada egin zuen Murtzian (Espainia), batera eta bestera erbesteratu zituzten beste maistra euskaldun askoren modura. Gero, atzera hona etorri zen, eta hemen zegoen gu jaio ginen garaian. Gure amaren familian gernikarrak ziren, izeko haiek bombardaketa ere bizi izan zuten, Euskal Herriaren historiaren zati batzuk bizitu zituzten, eta transmititu ere egin zizkiguten. Eta horrek, nahitaez, markatu egin gintuen.

Zuen izeko Lukreziak euskalgintzan jardun zuela esan diguzu.

■ Gerraurreko giro euskaltzalea bizitu zuen. Maistra ikasketak egin zituen Bitorian, eta, han zela, Eusko Ikaskuntzaren beka jaso zuen uda partean euskarazko ikastaroak egiteko; baita titulua ateratzeko ere. Behin edo bitan hartu zuen parte ikastaro haietan. Izeko Lukreziak esaten zuen irakasleetako bat Lauaxeta izan zuela.

Eta, hain zuzen, Lukrezia Badiola aipatu zenuen iragan urtarrilean Sabino Arana Fundazioaren saria jaso zenuenean. Besterik ere aipatu zenuen: Adrian Zelaia.

■ Adrian Zelaia! Deustuko unibertsitatean ezagutu nuen, irakasle izan nuenean. Frankismoaren hondar garaia zen, 1972-73 ikasturtea. Orduantxe ari zen mugitzen unibertsitatea, bateko eta besteko euskal kultur mintegiak tarteko. Garai hartan, hirugarren ikasturtean ginela, Adrian Zelaia esan zigun: «Bai, izan ere, euskaldunok zuzenbide zibil propioa daukagu». Eta hori esan zigun, hau basamortu hutsa zenean. Sasoi hartan, hemen inork horrelakorik ez zuen esaten! Orduko ikasketa-plan guztietan zuzenbide bat eta bakarra zegoela esaten ziguten, nazioarteko zuzenbidea ere ez zuten aipatzen, ez European dugun zuzenbide transnazionala ez bestelakorik. Ezer ez! Eta Adrian Zelaia, esan bakarrik ez, azal-

du egin zigun gauza! Ikasle batzuek ez zuten mezua jaso, baina beste batzuek, aldiz, kosk egin genion amuari: «Hizkuntza ez ezik, zuzenbidea ere badaukagu euskaldunok. Orduan, zer edo zer bagara, ezta?», pentsatu nuen nik. Adrian Zelaiak irakaskuntza araututik kanpoko eskolak ere eman zizkigun, klandestinitatekoak, euskal zuzenbide zibilari buruzkoak. Beti eduki dut gogoan Adrian Zelaia.

Lanean hasita, bestelako harremana izan zenuen berarekin.

■ Euskalerrriaren Adiskideen Elkartean eta Zuzenbidearen Euskal Akademian parte hartu nuen, eta orduan, Adrian Zelaiarekin, eta Javier Oleagarekin, harremana estutzeko aukera izan nuen. Hantxe, euskal zuzenbide zibila guztiontzat izan zedin lan egin genuen, lurralde batetik bestera zeuden ezberdintasun historikoak baliatu genituen, eta guztiontzako baliagarri izango zen erregimen berri bat ezartzeko lana egin genuen. Adrian Zelaiak irakatsi zidan zuzenbidea ez zela bat eta bakarra, gure zuzenbidea ezberdina zela, baina ezberdina zela Nafarroan ere, eta berdín Aragoian, Katalunian, Balearretan eta Galizian. Jendeak badaki hizkuntza ezberdinak hitz egiten direla han eta hemen, baina ez daki han-hemenngo eskualdeetan zuzenbide zibil ezberdinak egon direla, eta nortasunaren eramaile gogor eta sendoak direla.

Gaur egun, nortasunaren eramaile da euskal zuzenbide zibila?

■ Dudarik ez! Hemengo Autonomia Estatutuaren 10. artikulua 5. puntua baliatuz, 1992an Eusko Legebiltzarrak lehen zuzenbide lege bat egin zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako. Hura onartu orduko esan zuen Adrian Zelaiak: «Orain, euskaldun guztiontzako zuzenbide lege bat egin behar dugu». Asko kostatu zitzaion, ia-ia hamabost urte eman zituen horretan, baina 2015az gero espazio juridiko

horren jabe gara, eta horrek sekulako indarra eman digu. Gaur egun, senar-emazteen erregimen ekonomikoari dagokionez, edo herentzia arazoei dagokionez, adibidez, lege bera dugu hiru lurralde historikotan, eta hori egundoko aurrerapena da, aurrerapen historikoa, sekula ez baitugu horrelakorik izan, gure foruak lurraldekakoak izan baitira. Nafarroak bestelako erregimena dauka, askoz osoagoa, erresuma izan baitzen.

Kode Zibila

«Joanak dira bi mende, Napoleonen Kode Zibila frantsesez argitaratu zenetik (1804). Horixe izan zen, hain zuzen ere, Europako kodegintza zibilaren lehendabiziko mugarrria, eta, harrezkero, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako lurralde euskaldunetan indarrean egon den eta dagoen lege-testua. Orain, berriz, Espainiako Kode Zibilaren euskarazko bertsioa plazaratu da. Hori berori da Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan aplikagarri den lege zibila, betiere bertako foruzuzenbidearekin batera.

Europako kontinentearen tradizio juridikoan, eta XXI. mendearen hastapenetan, Kode Zibila da oraindik tokian tokiko antolamendu juridikoaren euskarririk garrantzitsuenetako bat. Egoera horrek XIX. mendean du jatorria, garai horretan hasi baitzen Frantziako Kode Zibilak aitzinatu zuen prozesu luzea. Prozesu horren itxiera 1900. urtean gertatu zen, Alemaniako BGB argitaratzearekin batera. Hortaz, beranduko emaitza da Espainiako Kode Zibila, 1889. urtean kaleratu zena».

(Kode Zibila, hizkuntza eta hizkera, Andres Urrutia, 2004)

Aurrera baino lehen, euskal kultur mintegia aipatu duzu, Deustuko unibertsitateko EKM, garai batean aipu eta sona handikoa.

■ Mintegiak antolatzen zituen klaseetan ikasle izan nintzen. Gogoratzen naiz Zuzenbide Zibila irakatsi zigula Adrian Zelaiak; Geografia, Jose Luis Lizundiak; Historia, Jose Antonio Arana Martijak. Giro berri bat zetorren. Xabier Kintanak hizkuntza eskolak ematen zituen, baina ni ez nintzen haren eskoletan izan, ni Santutxuko Karmeloko gau-eskolan alfabetatu bainintzen: Patxi Uribarren, Joseba Basterra, Jose Ramon Etxebarria eta besterekin... Euskara batuan, estandarrean ikusi nuen lehenengo liburua *Behin batean izan zen*, Xabier Kintanarena. Gogoratzen naiz lehenengo ikastaroa bizkaieraz egin genuela. Bigarrena, batuaz. Hatxearen lehertzea izan zen hura. Dena zen hatxea! Noraeza bizitu genuen, alde horretatik, hatxea non jarri, non ez. Baina ez genuen dudarik euskara aurrera atera behar zela, eta guk, belaunaldi berrikook egin behar genuela lan hura. Hatxea han edo hemen jarri, berdin zen, sasoi hartan euskara aurrera ateratzea zen kontua.

«Hatxea han edo hemen jarri, berdin zen, sasoi hartan euskara aurrera ateratzea zen kontua»

«Hatxe da rebozazioaren sinbolo plastikoa», esaten ei zuten Gasteizen garai hartan estandarren kontrakoek.

■ Baina besterik zen arazoa. Guk geneukan euskara ez eduki pobre hura berreskuratzen ari ginen, doitzen eta gaitzen, baina konturatzen ginen entzuten genuen herriko euskaratik urrun zegoela; distantzia handira, gainera. Horretaz konturatu ginenean jakin genuen guk geuk egokitu behar genuela geure

burua, herriak ez zuela zertan bere euskara egokitu. Horretaz konturatzea ez zen gauza erraza izan. Euskara-eredu harekin batera etorri zen Axular, eta ongi etorri. Eta etorri zen Leizarraga, eta ongi etorri. Eta etorri zen *Lingua Vasconum Primitiae*, eta ongi etorri... Baina Lekeition, adibidez, Axularrekin abiatu behar genuen alfabetatzea? Ala egokiago zen herriko egile bat irakurtzen hastea? Azkue, demagun. Denbora alferrik galdu genuen, absurdoa zen.

Denbora alferrik galdu zen, luma zorrotz asko ere bai.

■ Dudarik gabe. Eskura geneukan *Kresala!* Aldiz, ez zitzaigun bururatu hura hartzea! *Kresala*, haren mezu ideologikoa bazter utzita, miresgarria da hizkuntzaren aldetik, eta gaurko egunean ere! Miresgarria. Eta lekeitiarrarentzat, edo ondarroarrarentzat, egundokoa da liburu hori. Hortik hastea zen egokiena, baina bateko euskaldundu beharra, besteko alfabetatu beharra... kontrako muturreraino joan ginela uste dut.

Eztabaida mingarriak ekarri zituen estandarizazioak.

■ Bai, baina nik beti izan nuen garbi euskara batua ezinbestekoa zela, eta hori bezain garbi, bestalde, euskara batu horren aldeko izateak ez zekarrela aurretik zetorrena, hatxearen kontra zeuden pertsona baliotsuak barne, baztertzea. Hala ere, baztertu egin ziren, baina, hala ere, beti izan nituen harreman onak haiekin, asko ikasi nuen haiengandik. Asko. Horra Labayru, eta horra Mikel Zaratek esaten asmatu zuena: «Dakigunetik ez dakigunera». Karmeloko ikastaroak eta gero, Labayruko ikastaldiak egin nituen. Harik aurrera, autodidakta izan nintzen, nire belaunaldiko asko eta asko izan ziren moduan. Borondate itzela geneukan, grina, gogoa... Gose eta ezin ase genbiltzan, eta liburuak, berriz, apenas, ozta-ozta. Gaur egunean, liburuak baditugu. Gogoa, aldiz, eskastu egin zaigula esango nuke.



Liburuak nahi beste orain, motibazioa auzoan...

■ Eduki horiek ofizialdu egin dira, inork ez ditu zalantzan jartzen, ez dago kontrakotasunik ez klandestinitaterik... Normaldu egin da eduki horiek lantzea, eta horrek, gure hizkuntzaren egoeran, gale-
ra dakar; eta hori garbi ikusten dut unibertsitateko ikasleen artean bertan. Garai batean ez nuke amestuko gure hizkuntzak gaurko egunean bizi duen egoera iritsiko zuela. Orduko hartan ezinezkoa zen pentsatzea euskara egunen batean ofiziala izango zela, edo ikasgeletan izango zela. Zuzenbide ikasketak egiten hasi ginen urtean, mendizale bat hil zen Anboton. Haren eskela jarri zutenean, ezin ulertu! Hango garbizalekeria, hango *r* kakotxduna, hango abarra! Ikasketen azkeneko urtean, berriz, esperimentu bat egin genuen hiruzpalau euskaldunek; euskaldun zaharrak ginen batzuk, euskaldun doituak beste batzuk: irakaslearen azalpenak euskaraz hartuko genituela agindu genion batak besteari. Eta esan eta egin, euskaraz hartu genituen oharrak. Kontzeptuak eta konstruktoak euskaraz nola izendatu zen gure problema. Baina batera eta bestera, egin genuen! Horixe izan zen gure ibilia! Eta gure moduan, horixe bera egin zuten beste askok.

Honenbestez, zer dagokio, zure ustez, oraingo gazte belaunaldiari?

■ Nik hori oso argi daukat. Nire ustez, oraingo belaunaldiak euskara normaltasunez erabili behar du, euskara ez baztertu. Oraingo gazte belaunaldiak sekulako aukerak izan ditu. Badakite euskaraz, badakite gaztelaniaz, badakite ingelesez, badakite frantsesez edo alemanez... nahi beste aukera dituzte honako eta harako, bateko Erasmus eta besteko atzerriko egonaldiak. Ingelesa oso garrantzitsua da. Gaztelania eta frantsesa, berdin, garrantzizkoak. Baina euskara ere jokoan egon dadila eskatzen dut nik. Gure gazte belaunaldien errealitatea da ikasketak bukatu, lanera jo, eta laneko giroan euskararik

ez dagoela, edo, baldin badago, oso maila apalean dagoela. Horixe dugu erronka, eta ez dugu erronka erraza, hori ez baita ikastaroak eginez konpontzen. Giro sozio-ekonomikoa, giro soziala, laneko giroa... Giroa da kontua, eta giroa aldatzea gauza zaila da.

«Gure gazte belaunaldien errealitatea da laneko giroan euskararik ez dagoela»

Zailtasunak zailtasun, «Ezina, ekinez egina» da esaera.

■ Gaurko egunean nahi beste legelari, ekonomista, ingeniari, kimikari... ditugu, euskaldunak! Ez dute zertan hizkuntzalari izan, baina bere lana euskaraz normaltasunez egiteko aukera izan behar dute. Orduantxe sortuko dira aukera berriak euskararentzat! Guk Zuzenbideko azkeneko urtean oharrak euskaraz hartu genituenetik hona, era guztietako lorpenak izan ditugu: terminologia lortu dugu, kontzeptuak eta konstruktoak euskaraz ematea lortu dugu... Egin behar genuena egitea lortu dugu, *in vitro*. Baina, *in vivo*, noiz? *In vitro* egiten duzuna *in vivo* aplikatu behar duzu, bestela ez du merezi, alferrik ari zara! Horixe dugu problema.

Nondik hasi behar dugu korapilo hori askatzen?

■ Problema ez da amaitzen euskara ikasgeletan erabilita. Hori nahitaezko baldintza da euskara *in vivo* erabiltzeko. Baina euskara ikasgelan *in vitro* irakatsita ez da problema konponduko. Eta bestela pentsatzen baldin badugu, oso oker gaude. Bigarren fase bat behar dugu, eta bigarren fase horretan senperrenak eta bost ikusiko ditugu. Hobe dugu jakinaren gainean egon, eta gogotik lan egin.

Badago bigarren fase horri ekiteko plangintzarik, egitasmorik, proiekturik?

■ Oso galdera ona. Esan, asko egiten dugu. Diagnostiko egiten, bagara. Aldiz, neurri praktikoak gauzatzen... Zilegi bekit esatea, eta galdera zeuri itzultzea: prentsa-kanpainak eginez konponduko da egoera hori?

Hortxe zure galdera... Hitz beste eginez, 100 urte Euskaltzaindiak, 100 eta bat gehiago aurten. Zer diozu Akademiaren osasunaz?

■ Bizirik dagoela. Ehun urte, eta bizi-bizirik dago Euskaltzaindia. Hain zuzen, kolektiboak osatzen duelako Akademia, nork bere filia eta fobiekin, baina kolektiboak, eta kolektibotasun hori ekintzetan gauzatzen dugu. Behin eta berriro esaten dudana: obrak mintzo! Liburu baten titulua duzu *Obrak mintzo*. Ipar Euskal Herriko abade batek idatzita-

koa. Baionako ospitalaren kapilaua zen, eta gaixo euskaldunei ospitaleko egona errazago eramaten laguntzeko, liburuak idazten zituen: ama birjinaren mirariak eta antzekoak, euskara erraz eta dotorean beti. *Obrak mintzo* duzu, beraz, haren lanetako baten izena. Hark bezala esaten dut nik: obrak mintzo! Gure Akademiaren obrak berak dira mintzo. Kolektibotasunean datza Euskaltzaindiaren bertuterik handiena, eta jakina da kolektibotasun hori jatorri ezberdineko kideek osatzen dutela, Euskal Herri osokoak. Kolektibotasun horretatik, guztiontzat onuragarri eta baliagarri dena ateratzen dugu. Horrek ez du galarazten Akademiatik aparte nork bere single-a edo LP-a grabatzea.

Kar, kar... Nork bere bidea, alegia.

■ Bai, baina Euskaltzaindiaren barruan ari denean, publiko zabalarentzako obrak egin behar ditu Akademiako kideak.



Hizkuntza erraz, labur, argia

«1978ko [Espainiako] Konstituzioa indarrean jartzeaz geroztik, Bigarren Errepublikaren garaia salbuetsita (1931-1939), gaztelania eta autonomia-erkidego zehatz batzuetako hizkuntzak (besteak beste, euskara bera) ofizialkide dira autonomia-erkidego horien lurraldeetan. Horiek horrela, hizkuntza ofizialkideak mundu juridiko-zibilaren partaide dira, eta, mundu horretan, hizkuntzok adierazi behar dituzte bai Kode Zibilaren edukia, bai Espainian indarrean dauden foru-legeria nahiz legeria zibil berezi desberdinen edukiak. Izatez, bi errealitate horiek barneratzen dituzte mundu juridiko-zibil horren oinarriak. (...) Nolanahi ere, ukaezina da hizkuntzak lege eta arauen itxuraketan duen pisua. Kode Zibilaz denaz bezainbatean, horren jatorrian bultzada demokratikoa eta berdintasun-gogoak nabarmendu ziren; inguru horretan, hizkuntza erraz, labur eta argia erabili nahi izan zen. Horren aurka, mundu juridikoaren teknifikazioa, gero eta handiagoa eta beharrezkoagoa dena. Horrek berarekin dakar prozesuaren orekak beti-beti egokiera zehatza ez erdiestea».

(Kode Zibila, hizkuntza eta hizkera, Andres Urrutia, 2004)

Jakin baliteke, zein duzu Euskaltzaindiaren publikoa?

■ Hiru-lau hartzaille mota ere baditu Euskaltzaindiak. Hor dituzu, batetik, filologo edota hizkuntzalariak, goi mailako ikerketa helburu dutenak. Bestetik, ofizialtasunak ekarri duen taldea dugu: irakasle, idazle, itzultzaile, kazetari eta teknikariak; horiek ikerketa hartatik datozen eta Akademiak finkaturiko irizpideen hartzaille zuzenak dira; ez hartzaille huts, hala ere, feedbacken ibili behar baitugu horiekin. Nahitaezkoa da haiekiko harremana! Halako proposamena edo halako irizpidea egokia den, ez den, esango digute. Eurek idatziko edo itzuliko dute, baina irizpidea behar dute honetarako eta hartarako. Adibidez, italieraz datorren nobela bat euskarara itzuli behar duenean, itzultzaileak jakin beharra

dauka Italiako toponimia zelan eman euskaraz, edo Italiako onomastika. Horrelakoak ere egin behar ditugu. Horiekin batera, jende multzo handia duzu Akademiara jakin-minez hurreratzen dena, onomastikaz, toponimiaz edo honetaz eta hartaz zerbitzu eske.

Eta hizkuntzaz jakin-min apartekorik ez duen oinezkoa, gizon-emakume arrunta? Zer opa dio horri Euskaltzaindiak?

■ Hizkuntza zerbitzuak emateaz gainera, oro har, Akademiak balio sinbolikoa du. Sarritan, ahaztu egiten dugu hori. Akademia ez dago, bakarrik, bere egoitzan. Akademia herriz herri dabil, hala Nafarroan nola Zuberoan, Bizkaiko Enkarterrietan edota Gipuzkoako Abaltzisketan. Akademia euskal-

duntasunaren izenean doa toki horietara, balio sinbolikoa darama, eta balio horri eutsi egin behar dio Euskaltzaindiak. Besterik da balio sinboliko horretan geratzea. Sekula ez dut hori aldeztuko. Amezketara joan ginen, adibidez, Fernando Amezketarraren jaiotzaren 250. urteurrenean. Egia da Euskaltzaindia Amezketara joan, ez joan, Amezketako euskalduntasuna ez dagoela ezbaian, baina Euskaltzaindiak balio sinbolikoa eranstean dio euskalduntasun horri: erakundearen presentziak Fernando Amezketarra, Resurrección Maria Azkue eta gainerako autore guztiak daramatza hango eta hemengo herrietara. Eta dena delako herrian da, esate baterako, Jean-Louis Davant jauna, Zuberoako Ürrüstoi-Larrabiletik etorria, edo Sagrario Aleman, Iruñetik joana. Presentzia horixe, alegia! Hori izango ez bagenu, asmatu egin beharko genuke.

«Hizkuntza zerbitzuak emateaz gainera, Akademiak balio sinbolikoa du»

Presentzia horrek ez du pisu bera Zuberoan, Nafarroan edota Bizkaian, adibidez. Euskararen egoerak ezberdinak dira.

■ Eta igartzen da. Dударik gabe. Aspaldi esan nuen: Euskaltzaindiak ezin du, inondik ere, bere mezua modu berberean eraman herri guztietara. Euskaltzaindiak jakin egin behar du tokian tokiko ingurubarrak zein diren, inguruabar horien arabera jokatu behar du. Ezin dugu pentsatu Gipuzkoako edo Bizkaiko gunerik euskaldunenetan aplikatzekoak diren neurriak Nafarroako Erriberan aplikagarriak direnik. Hori badakigu. Balio sinbolikoa berbera izan liteke, baina hori jakinik, euskararen garapen mailak han



eta hemen ezberdinak direla jakin behar dugu, eta badakigu, eta horren arabera eman behar ditugu pausoak. Euskararen arnagune den herri batean eta gaztelaniaz bizi den bestelako herri batean ezin gintezke abiadura berean joan. Laudiok eta Gernikak ez dute egoera bera bizi, baina Euskaltzaindiak bietara joan behar du, mezuak egoeraren arabera doituta. Trebetasun hori, arte hori, ez da berria. Orain dela 100 urte ere berdina esaten zuten Euskaltzaindiak.

Jakin baliteke, zer zioen orain dela 100 urte Euskaltzaindiak?

■ Gauza berbera gertatu zitzaion Euskaltzaindia sortu zutenean, ikusi zutela tokian-tokian euskararen egoerak diferentek zirela. Horregatik erabaki zuten Iker saila asmatzea, euskararen corpusa aztertzekoa, esango genuke, baina, horrekin batera, asmatu zuten Jagon saila ere, hizkuntzaren estatusari erreparatuko ziona, eta, hain zuzen, bete-betea sartzeko da



hor Akademiaren balio sinbolikoa. Eta balio sinboliko horrek euskalduntasunaren izenean hitz egiteko zilegitasuna ematen dio esateko Nafarroan, Autonomia Erkidegoan zein Ipar Euskal Herrian, euskararen aurrerabidean pausoak eman behar direlako. Sorrera beretik esan du Euskaltzaindiak horretan ere saiaturiko dela. Horrek ez du esan nahi, haatik, Euskaltzaindia politikan sartuko dela.

Zer duzu Euskaltzaindiaren politika?

■ Hizkuntzari buruzko politika. Euskaltzainetan nork bere joera politikoa du, eta hala izan behar du. Euskaltzaindiak hizkuntzari buruzko politika du helburu. Edo baten batek bestela esan zuenez: «Eragin handiago hizkuntzaren ikuspegitik, eragin gutxiago politikaren ikuspegitik». Baina beharrezkoa dugu hizkuntzaren aldeko politika bat. Euskaltzaindiak beti esan du ideologiaren gainera saiatu behar dugula hizkuntzaren aldeko politika egiten. Ez da gauza erraza, oso zaila baizik, baina horixe da egin behar dena: euskararen politika, ideologiaren gainera. Seguru nago horretan katalanek, eta espainolek, euren hizkuntza euren borroka politikatik kanpo ikusten dutela. Tira, orain alderdi batzuk endredatzen hasita daude horretan ere. Baina, oro har, borroka politikotik kanpo jartzen dute denek euren hizkuntza.

«Euskaltzaindiak beti esan du ideologiaren gainera saiatu behar dugula hizkuntzaren politika egiten»

Euskara borroka politikotik kanpo atera behar da?

■ Bai, ze bestela jai daukagu. Hori egiten ez badugu, beti egongo da gizartearen sektore bat zuri horixe esaten: «Hori ez da hizkuntza, hori politika da!». Euskara ez da politika, euskara da hizkuntza! Eta hizkuntza horrek aurrera egin behar duela pentsatzen badugu, pausoak eman behar direla uste badugu gizartearen barruan bake soziala izateko, emango ditugu. Pausoz pauso joan behar dugu, ez dugu dena biharko lortuko, eta pausoz pausoko bidean une batzuk izango ditugu gozoagoak, eta beste batzuk garratzagoak.

Diote teknologia berriak baliagarri direla bateko eta besteko lurralde administrazioek ezartzen dituzten mugak gainditzeko...

■ Dudarik gabe! Eta horixe da bidea. Euskaltzaindiaren mendeurreneko ekitaldietako batean galdetu zidaten: «Eta orain, 100 urte eta gero, zer egin behar duzue?». «Bada, gutxienez, euskaldunari zerbitzuak eskaini! Horra, esate baterako, teknologia berriak, komunikatzeko era ezberdinak; sare sozialak!». Euskarak sekulako jauzia egin du teknologia berrietan, eta jauzi hori ez zaigu zerutik behera etorri. Halaxe saiatu garelako, halaxe nahi izan dugulako egin dugu aurrera teknologia berrietan.

Teknologia berriak, Internet, zuzentzailea, itzultzaile automatikoa... Itzultzaile neuronalaz ari dira oraingo egunean...

■ Etorriko da hori ere, eta datorrela! Baina itzultzaile neuronalek, direnak direla ere, beti beharko dute, euskararen kasuan behintzat, espazio erkide eta partekatutako bat: euskara estandarra. Bestela, sistemak ez du funtzionatuko. Beharbada, egunen batean lortuko dute euskalkien zertzeladak, herrian herriko hizkeren xehetasunak ere jasotzea, baina, bitartean, euskara estandarra daukagu. Eta euskara estandarra ez da guregandik kanpo dagoen zerbait.

Espainiako eta Frantziako Kode Zibilak

«Espainiako Kode Zibilaren euskarazko bertsio hau egiteko, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lurralde euskaldunen ikuspuntua erabili da. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako lurraldeen eguneroko bizimoduan, Frantziako Kode Zibilaren formulak eta artikuluak euskaraz aplikatzen hasiak dira oraintsu, gizabanakoen jaiotza-, ezkontza- edo heriotza-kasuetan; baina hori ez da oztopo izan behar oraingo honetarako. Kontrara, bultzagarri bihurtzen da bihar-etzi batasunerako ahaleginak egin daitezen; lan honetan, lurralde horietako testu euskaldunak kontuan hartu eta erabili izan dira, eta guztion arteko bat egiteak bide horretatik jo dezake. Azkenik, lurralde euskaldun guztietarako joera horretan, ezin da ahanzi Europako zuzenbidea terminologiaren eta diskurtsoaren batasuna bultzatzen ari dela dagoeneko, zuzenbide hori gero eta hurbilago baitago zuzenbide zibilaren eremu jakin batzuetan».

(Kode Zibila, hizkuntza eta hizkera, Andres Urrutia, 2004)

Nork egiten du estandar hori?

■ Geuk, eguna joan eta eguna etorri euskaraz hitz egiten dugunok! Ez Euskaltzaindiak ez beste inork, euskara darabilen horrek baizik: idazleak, idazten duenean; esatariak, albisteak euskaraz ematen dizkigunean... Euskaltzaindiak erabiltzaile horrek darabiltzan materialak (hau da, corpusa) bildu, sistematizatu eta, gero, testua eta testuingurua aztertu eta hautua proposatzen du. Euskaltzaindiak ezin du besterik egin. Joanak dira garai bateko Euskaltzaindiaren bilera haiek: «Gure herrian esaten da... *tripi-trapu*», «guk *igela* esaten dugu», «guk, *ugarixo*»... Hori ere egiten dugu Euskaltzaindian, baina dialektologian. Hala ere, testu bat sortu behar baldin badugu, nobela bat idatzi, dekretu bat itzuli... zer jarri behar dugu, bada? “Tripi-trapuen ingurumena”. Akabo, bada! Oinarrizkoa da hori! Besterik da hori jendeari ulertaraztea.

Jendeak ez daki Euskaltzaindiaren barruan zer «egosten» den.

■ Euskaltzaindia saiatzen da herriari azaltzen zer egiten dugun eta gure kontuak nola eratzen ditugun: horra gure aktak, argitaratuak, eta horra ageriko bilkurak eta gainerakoak.


«Zenbat buru, hainbat (ustezko) filologo», diote bazterretan.

■ Ez sinestekoa da. Egunero jasotzen ditugu Euskaltzaindian era guztietako teoria berriak. Eta, hala ere, esan behar da herri honen isla dela Euskaltzaindia: herritarrok egiten dugu Euskaltzaindia, ez beste inork, ez zerutik etorritako aingeruek.

Itzulpenen eskakizunak

«Itzulpen guztietan, eta, bereziki, itzulpen juridikoetan, nahitaez bermatu behar dira bi motatako eskakizunak: aurrenik, itzulitako hizkuntza bat etorri behar da itzulpenaren emaitza den testuarekin; eta, bigarrenik, segurtasun juridikoa zaindu behar da, bi testuetatik edozein erabili nahi duen jardule juridikoarentzat hori ezinbestekoa baita. Testu honetan [Kode Zibila], zailtasun horren jakitun jokatu da, batik bat, Kode Zibilaren sistema juridikoak historian zehar euskarazko molderik izan ez duela kontuan hartuta (eta, salbuespen moduan, foru-zuzenbide zibilaren kasua ere aintzakotzat izanik). Beste sistema batzuetan, hizkuntza bakoitza bere antolamendu juridikoaren eramaile izaten da. Gurean, aldiz, sistema bera bi hizkuntzatan adierazi behar da, eta bi hizkuntzok euren artean desberdintasun handiak dituzte, garapen juridikoari eta hizkuntza-garapenari dagokienez behinik behin. Ondorenez, jatorrizko hizkuntzak nabarmen baldintzatzen du itzulpenaren xede-hizkuntza».

(Kode Zibila, hizkuntza eta hizkera, Andres Urrutia, 2004)



Arlo juridikoa duzu lantegi, notario zaren aldetik, eta makina bat lan egin da euskarak sail horretan ere bide egin dezan. Hor ere gehiago egin da *in vitro*, zure hitzak neure eginez, erabili baino?

■ Dударик ez izan. Arlo juridikoan, gure problema da ofizialtasuna aldarrikatu zenetik aldizkari ofiziala itzuli egin behar izan dela. Itzuli, ze beste biderik ez zegoen! «Itzuli ditzagun!», esan genuen, eta horixe egin dugu, itzuli. Baina ondoren datorren galdera da: «Nork erabiltzen ditu itzulitako testu horiek?». Inork ere ez. Edo oso jende gutxik. Arlo juridikoan egundoko lana egin da, baina legea ez da euskaraz praktikatzen. Ofizialtasunaren eraginez egin ere. Hor dituzu IVAPen lana, unibertsitatearena, UZEI-rena, batarena eta bestearena. Hala ere, guk ez dugu euskara arlo juridikoan normalizatzeko aukera sekula izango; normalizazio horrek dekretu bat zuzenean euskaraz sortzea esan nahi baldin badu, behintzat. Sekula santan diot, kostatuko dela esan nahi dut. Baina horraino gabe ere, sekulako altxorra dugu itzulita. Modu batera hasi ginen, beste era batera ari gara gaur, gogoeta egin dugu, aditz berriak asmatu ditugu... Hortxe duzu *xedatu*, adibidez. Orain dela urte batzuetako aldizkarietara jo, eta ez duzu ikusiko! Eta eskubidea dugu hitzak, aditzak eta behar den guztia asmatzeko! Gauza bera egin zuten Espainiako Bigarren Errepublika garaian. Eta [Jesus Maria] Leizaolaren peko Jaurlaritzak gauza berbera egin zuen buletin ofizialak euskaraz argitaratzeari ekin zionean.

«Arlo juridikoan egundoko lana egin da, baina legea ez da euskaraz praktikatzen»



Hitzak, aditzak... behar den guztia asmatu.

■ Eta baten batek izango ditu estatistikak. Nik ez dut horri buruzko daturik ikusi. Izatekotan, zenbat errenta aitorten egin diren euskaraz jakin izan dut inoiz. Hala ere, gustura jakingo nuke zenbat legegari erabiltzen duen euskara juridikoa. Baten batek izan behar ditu estatistikak, baina seguru nago emaitzak oso urriak izango direla. Eta ez naiz pesimista. Ez dut esan nahi amore eman behar dugunik. Esan nahi dudana da geuk geureganatu behar dugula arlo hori, baina ez bakarrik legegariok, unibertsitateko irakasleok, profesionalok, administrazio publikoak... ere bai! Guztion artean egin behar dugu lan hori. Baina ez dugu egiten.

Galdera adibidea: zergatik ez dio nagusi euskaldunak maizter euskaldunari etxea euskaraz errentatzen? Zergatik ez dira kontratu horiek euskaraz egiten, bi aldeak euskaldunak izanagatik ere?

■ Sinesten ez dugulako! Gure problemetariko bat da ez dugula euskarak balio duela sinesten. Euskaldunak gara bi aldeok, eta euskaraz egiten dugu tratua. Eta, gero, hori idatziz eman behar dugunean, gaztelaniaz egiten dugu! Gure notariotzan, Bilbon, langileetan erdiak baino gehiago euskaldunak dira, hautua halaxe eginda, eta bezeroekiko ahozko harremanak euskaraz ditugu. Aldiz, idatzizko harremana, euskaraz denean ere, gaztelaniatik ekarritakoa da, eta, jakina, horri begiratzen diogu denok. Bestalde, dena delako testua euskaraz ere badagoenean, beti da bezero arraroren batek beren-beregi eskatu duelako. Hilean behin, edo birritan, egiten ditugu euskarazko testamentuak eta hau eta beste. Ez dugu sinesten. Itzulpena da beti. Eta itzulpena morrontza da.

Korredakzioaz ere hitz egin izan da.

■ Bai, *co-drafting*-a. Oraindik orain argitaratua naiz artikulua bat aldizkari amerikar batean gaiaz. *Co-drafting*a, primeran! Baina zertarako, gero erabiliko

ez bada? Problema da, funtsean, ez dugula sinesten. Esan dut lehen ere, *in vitro* ala *in vivo* nahi dugu euskara? Zenbatek erabiltzen dituzte egin ditugun lanak, itzulpenak eta beste? Berdin, berridazketa. Hainbat legegari atera dira gure unibertsitateetako fakultateetatik. Euskaraz jaso dute formazioa. Euskaldun petoak dira, eta euskaltzaleak ere bai, bazuetan! Galdetu haiei idatzizkoan zenbat erabiltzen duten euskara. Joan eta galdetu!

«'In vitro' ala 'in vivo' nahi dugu euskara?»



Ezinezkoa ote da, bada, legea tarteko den auzietan euskaraz jardutea?

■ Ez! Gure notariotzan, esaterako, bi notario gara, euskaldunok biok, eta euskaldun asko etortzen zaizkigu. Abokatua ere euskalduna dugu. Baina dena delako auziaren gainean, idatzizkoa erdaraz nahi du jendeak. Hala ere, Bilbon urtean dozena erdi testamentu egiten badira euskaraz, badakit hitz egiten ari den honek egin beharko dituela. Bada, ondo dago! Horrelaxe lan egitea erabaki nuen eta aurrera, besterik ez dago. Orain dela hogeitun urte, Deustuko unibertsitatean, Zuzenbidean behar genituen liburuak euskaraz jarriko genituela erabaki genuen. Eta egin genuen, IVAPen laguntzarekin, besteak beste. Konplitu genuen lehenengo lana: irakasleak eta ikasleak trebatu genituen. Gero, bigarren fasea etorri zen, eta orduko ikasleetako batzuk, irakasle bihurtuta, euren euskarazko liburuak egitera iritsi dira. Horixe da bidea, eta berriro diotsut, *in vitro*. Orain *in vivo* egin behar dugu lehen *in vitro* egin genuena.

Zuk *in vivo* nahi duzu euskara, sail guztietan ere.

■ Bai, bada! Nik euskara *in vivo* nahi dut, dudarik gabe. Bestela, zertarako? Zertarako sortu behar ditugu euskarazko taldeak unibertsitatean, euskarazko taldeak praktika juridikoko eskoletan, etorkizuneko legelari izango diren horientzat? Zertarako hartu behar ditugu lan horiek, fakultatetik atera eta bulegoan lanean hasitakoan euskara gauza *rara avis* bat izango dela jakinda? «Honako morroi honek perfekzioz daki ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz, eta, hori ez ezik, boloak gora botatzeko gauza da eta, erne!, euskaraz ere badaki!». Karikatura egiten ari naiz, jakina.

Apal eta mantso hasi zara hizketan, baina berotu ere egin zara euskararen erabilerari ekin diozunean...

■ Ez naiz berotuko, bada! 1981eko urriaren lehenengoan hasi nintzen notario lanean Ondarroan.

Ondarroan! Herri euskaldun peto-petoa! Nire harreman-hizkuntza euskara zen %95ean! Eta zer lortu nuen, bada! Gogoratzen naiz zein izan zen nire lehenengo euskarazko akta. Eta, gainera, neronek eskatuta etorri zen. Lore jokoak egin ziren Ondarroan, eta Augustin Zubikarairi esan nion: «Honen akta jaso behar dugu, eta euskaraz!». Eta Augustin zenak: «Ederto, ederto!». Han egongo da akta hura, Ondarroan, nire protokoloan. Herri euskaldunagorik ba ote, Ondarroa baino? Euskarari dagokionean, herri kontzientziadunagorik ba ote inon? Eta hala eta guztiz ere, hori, idatziz, ez da islatzen. Bilbon bestela da kontua.

Zer esan nahi duzu? Zertan da ezberdin Bilbon?

■ Euskaldun berriek, euskara ikasteko esfortzua edo ahalegina egin behar izan dutenek, euskaraz eskatzen dute idatzizkoa. Horiek ez dute barkatzen! Eta horixe da egin behar dena: ez barkatu, euskaraz eskatu! Eta galdetzen dute: «Eta hemen zergatik ipini duzu berba hau?». Lehengo batean irakurri nion Bernardori [Atxaga] *Argian*, 5.000 irakurlerekin mundua mugituko genukeela. Nik, neure arloan, erraz etsiko nuke 200 legelarirekin. Edo 100ekin. Edo Sodomian eta Gomorran bezala, 50ekin. Euskaraz lan egin ahal izateko masa kritiko bat izango bagenu, egundokoa izango litzateke. Ikusi dugunez, *in vitro* landutako horrek ez du eraginik *in vivo* masa kritikoa izango den horretan. Merkatuak bestelako eragin batzuk agintzen ditu. Eta administrazio publikoak berak ere, oso indartsu eta boteretsua izan arren, zail dauka, oso zail, merkatuari gailentzea.



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO